

Mariasun Landa

# MARLENE ETA TAXIZAPATA

Marrazkiak: Elena Odriozola



erein AUSKA 



MARLENE  
ETA TAXIZAPATA



Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2022ko urria*

Azalaren eta barruko irudiak:

© Elena Odiozola

Maketazioa:

Erein

© Mariasun Landa

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-860-7

L.G.: D 1235-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

MARIASUN LANDA

# MARLENE ETA TAXIZAPATA

Ilustratzailea: Elena Odriozola

erein AUSKA 

idazlea

# mariasunlanda



Kateme bat izan nuen, maitatua oso. Ez zen urdina, baina Marlene deitzen genion, artista handi baten ibilera zuelako. Miaukan ere maila handikoa zen eta, gau batzuetan, parrandara joaten zen Izenik Gabeko kaleetan zehar. Hau eta gehiago jakin nuen etxeko zapata zahar batek kontatu zidalako. Sekretua gorde dut orain arte!

elenaodriozola

ilustratzailea



Orain dela hogeit hamar urte egin nituen liburu honetan agertzen diren ilustrazioak, eta horretan jarraitzen dut, marrazten. Oraindik ez naiz aspertu eta ez dut uste hori gertatuko denik inoiz.

Beti pentsatu izan dut gustatzen zaizun jarduera horrek izan beharko lukeela zure lanbidea, horretarako balio baldin baduzu. Gauzak askoz hobeto joango lirateke. Beraz... bizitzan oso inportantea da argi izatea, txikitatik, benetan gustatzen zaizuna zer den.





1  
ILARGIA ETA KALE  
IZENGABEA

**G**au batez, ilargiak kalean jarri zituen begiak, lurreko hiri bateko bazter galdu batean, eta kateme bati begira jarri zen. Zaharra eta makala zen. Burua tente zebilen kalean zehar.

Eta horrek jakin-mina piztu zion.

Ilargiak beste gauza bat ere ikusi zuen kale hartan: zapata zahar bat. Zapata hark, zikina eta hondatua, TAXI zeukan idatzia orpoan.

Eta horrek are jakin-min handiagoa piztu zion.

Kateme bakartia zapataren barruan sartu, eta biak abiatu ziren, urrats txikian, kalean zehar.

«Hara zer dugun hemen! Historia bat!», pentsatu zuen ilargiak. Eta hura gertatzen ari zen kalearen izena jakin nahi izan zuen. Ez zuen aurkitu.

Kale izengabe batean inork ez du bizi nahi izaten. Beharbada, noizbait norbaitek etxeak egin zituen, dendak ireki, zuhaitzak landatu..., baina inork ez du gogoan haren izena, eta existituko ez balitz bezala da hori.

«Maite ditugun gauza guztiek dute izen bat, triste samarra da izenik ez izatea, inork ez maite izatea», pentsatu zuen ilargiak bere artean.

Eta arreta handiagoz begiratu zuen bizitzak hondatutako zapata batek kateme zahar



eta tente bat zeraman leku hartarantz. Ilargiak bazekien kale izengabeetan etxeak erdi erorita daudela edo inor ez dela haietan bizi. Dendek, kafetegiek edo bankuek agian izango dituzte beren errotuluak, baina hutsik daude. Zuhaitzen sustraiek espaloiak harrotu dituzte, farolak hautsita daude, eta aspaldian ez da autobusik ez autorik pasatzen handik. Eskoletako patioetan basa-belarrak hazi dira.

Baina ilargiak bazekien beste gauza bat: kale izengabeetan gauza asko gertatzen dira. Oso erne egon beharra dago, eta bista ona izan, gauean biztanleak beren ezkutalekuetatik irten eta kontatzea merezi duten istorioak gertatzen baitira.

Ilargiak bazekien hori, eta gustura egoten zen goitik kale haietan gertatzen zenari begira, nahiz eta mundu guztiak uste han ez zela ezer gertatzen.

Beno, egia esan, ilargiak oso maite du muturra edozertan sartzea. Batzuetan disimulurik gabe egiten du hori, beste batzuetan erdi ezkutuan, eta inoiz desagertu ere egiten da. Baina batzuetan, kuidado guztiak albo batera utzi eta mundura agertzen da inolako lotsarik gabe.

Gau hartan, bikote bitxi baten urratsei jarraitzea erabaki zuen.

Nor ote ziren?

Katemeak Marlene zuen izena, eta taxizapatak Z'Apa Tapatapa.

Ilargia zaharra da eta asko ikusia. Berehala ohartu zen kale izengabe hartan zerbait gertatzeaz zela, eta ez zuen inola ere galdu nahi. Aspertuta zegoen gerraz, uholdeez, autobiode betebetez, itsasoetan barrena dabiltzan itsasontziez, hiri erraldoiez eta su artifizialez. Beraz, askoz interesgarriagoa zen gainean kateme zahar bat zeraman zapata bat.

«Honek ipuina dirudi», pentsatu zuen ilargiak bere asperretik esnatuz. Inork begiratzen ez duen lekuetara begiratzea zuen gogoko, inork arreta jartzen ez dion gauza hori behatzea, ustekabeko pertsonaiak aurkitzea, istorio bitxiak...

Eta ilargiak asmatu egin zuen gau hartan.

Une hartantxe, historia sinestezin bat hasia zen Marleneren eta taxizapata haren artean.

Ilargiak ez zien begirik kentzen, hantxe ibili zitzaien kuxkuxean eta zokomiran, eta axola handirik gabe ez zien kasurik egin beste eginkizun garrantzitsuago batzuei.

Gainera, ilargiari inork ez zion inoiz ipuini kontatzen.

Eta kokoteraino zegoen.